

# 2006ko Zezenketak

2006-08-16ko ZEKORKETA

"EZ DA TXARTELIK GERATZEN"

Salamankako Lorenzo Fraile Martín jaunaren ganadutegiko lau zekor; hiru Ventana del Puertoko burdin markarekin eta bat San Lorenzokoarekin. Erremate eta aurkezpen desberdineko zekorketa. Joko asko eman zuena. Lehenengoak eta laugarrenak, basati eta nobleak, joko paregabea eskaini zuten. Bigarrena, gainontzekoak baino presentzia baxuagoa zuena, otzan aritu zen baina ondo sartu zuen aurpegia eskuineko adarretik; ezkerrekotik, ordea, ez zeukan paserik eta ondo defendatu zen. Hirugarren zekorrak, oso presentzia ona zeukan baina egundoko otzantasuna erakutsi zuen; azkenean, etsi eta amore eman zuen. Plazan bira bat eman zioten laugarrenari.

**Jesus M. Azkoitia** ezaguna izan zen plazaburu. Okasiorako dotore jantzita, aise bete zuen bere eginkizuna.

**Rafael Pastor** aritu zen zezen-aholkulari gisa, bere debuta izan zen. **Illan Uraín** gazteak ere debuta egin zuen Debako plazako algoaziltxo modura; hiru zekorketetan aritu zen maila oso ona erakutsiz.

Goraino beteta, nahiz eta eguraldiak lasaitasunik eman ez, "ez da txartelik geratzen" eskegi behar izan zen festa hasi baino ordubete lehenago. Aldaketak izan ziren plazan eta urtez urte hobetzen doa; musika bandak eta Lizarrako gaite-roek ere beste toki bat izan zuten.

**Alejandro Carmona**, Almeriako. Agurrak lehenengoan eta isiltasuna bere bigarrenean. Oso fama onarekin zetorren baina ez zuen berarengandik espero zena erakutsi. Zekor paregabea zuen lehenengoa baina, tamalez, ez zuen aukera hori baliatu nahiz eta tarteka zenbait pase on egin. Ergia ez zen alditxartu kapa gorria gehiegitan ukitu arren, baina zezen hilketari izan nahi duena, arratsaldeko zekor onenaren kualitateetatik oso urrun, askoz beheragotik, ibili zen. Hiltzerakoan neurririk gabe luzatu zen: ezkata-ukaldi akatsdunaren aurretik, lau zitzako eman zizkion. Bere bigarren zekorraren (arratsaldeko hirugarrena, mantso kikildu bat, oso gaizki jokatua) ez zuen luzimendurako aukerarik eduki. Beherako zatar batez hil zuen.

**José Manuel Mas**, Madrilekoa. Txaloak bere lehenengoan eta plazari bira bigarrenean. Bere lehenengoan txukun aritu zen eta molde onak erakutsi zituen zezena eskuineko adarretik jokatzen zuen bitartean. Eskuz aldatzerakoan, zekorra defendatu egin zen eta zeharo aldatu, pase bakoitzaren amaineran behin eta berriz eta erosotasunik eman gabe burua astinduz. Gaizki hil zuen; bost saiakera behar izan zituen etsaiarekin amaitzeko. Arratsaldeko laugarrenean, bere bigarrenean, molde onak erakutsi zituen bi eskuekin, zekorra jokatzeko era klasiko bat eta, irudia osatzerakoan, zezen eskolako traza tipikoak agertuz. Kaparekin gauza desberdin asko erakutsi zituen, bai bere zekorreai egindako quiteetan baita bere kartel lagunari zegozkionei egindakoetan ere. Piska bat atzeratuta geratu zitzaison ezkata-ukaldiz hil zuen baina lepatxokoa hausterakoan asmatu ez izanak, garaikurak galduarazi zizkion. Bere taldeko zilarrezko hiru zezenketariak nabarmendu ziren, bikain jokatu eta sartu baitzitzuten banderillak.

Ordezko gisa Salamankako **Alberto Gómez** aritu zen, iragarritako **David Luis Cerezoren** partez. Aukera gutxi eman zizkioten luzitzeko.

2006-08-18ko ZEKORKETA

PROTAGONISTA, ZEkor-KORRIKA

Zesen plazan egunean bertan jokatuko diren zekorrekin

# Novilladas 2006

NOVILLADA DEL 16-08-2006

CARTEL DE "NO HAY BILLETES"

Cuatro novillos de la ganadería de D. **Lorenzo Fraile Martín** de Salamanca, tres con el hierro de la Ventana del Puerto y uno de Puerto de San Lorenzo. Novillada de desigual remate y presentación. De juego diverso. Primero y cuarto, bravos y nobles dieron un juego excelente. El segundo, de presencia más baja que el resto, manoseó pero metió bien la cara por el pitón derecho, defendiéndose por el izquierdo por donde no tenía ningún pase. El tercero fue un novillo muy bien presentado, pero un manso de libro que terminó claudicando y rajándose. Al cuarto se le dio la vuelta al ruedo.


Presidió la novillada el popular **Jesús M. Azkoitia**, elegante vestido para la ocasión, que cumplió holgadamente su papel.

Debutó como asesor taurino **Rafael Pastor**. También debutó como alguacilillo de la plaza de Deba el jovencísimo **Illan Uraín**, que actuó en las tres novilladas estando a muy buen nivel.

Lleno hasta la bandera, a pesar de lo amenazante del tiempo, colgándose el cartel de "no hay billetes" casi una hora antes del comienzo del festejo. Cambios en la plaza, que sigue mejorando año tras año y también se dispuso una nueva ubicación para la banda de música y para la de los Gaiteros de Estella.

**Alejandro Carmona**, de Almería, saludos en su primero y silencio en el segundo de su lote. Venía precedido de una muy buena fama, pero no estuvo a la altura de lo que se esperaba de él. Tuvo un excelente primer novillo que lo desaprovechó lamentablemente, a pesar de que dio algunos buenos pases aislados. El era ni se indispuso ni cuando tocó, demasiadas veces, los trapos, pero el aspirante a matador de toros estuvo muy por debajo de las cualidades del mejor novillo de la tarde. Se eternizó matando, estando precedida la defectuosa estocada, por cuatro pinchazos. En su segundo novillo, el tercero de la tarde, un manso rajado que fue muy mal lidiado, no tuvo oportunidad de lucimiento. Mató de un feo bajonazo.

**José Manuel Más**, de Madrid, aplausos en su primero y vuelta al ruedo en el segundo. En el primero de su lote estuvo aseado y mostró buenas maneras mientras toreó por el pitón derecho. Cuando cambió de mano, el novillo se defendió y cambió totalmente, cabeceando de forma reiterada e incomoda al final de cada pase. Mató mal necesitando cinco intentos para acabar con su enemigo. En el cuarto de la tarde, segundo de su lote, mostró buenas maneras con las dos manos con un toreo clásico y con las trazas típicas de escuela taurina al componer la figura. Estuvo muy variado con





Euskal Autonomia Erkidegoan egiten den zekor-korrika baka-rra denez, **Juan Luis Bikuña** kazetari eta zaletu handiak, ETBko kamerak ekarri eta abuztuaren 18ko entzierroaren irudiak emititu zituen albistegietan Debakoa sustatzeko asmoz. Helburu hori hobeto betetzeko, herriko korrikalari esperientziadunet gain, Iruñeko entzierrotan ohikoak diren korrikalariek ere parte hartu zuten eta, horrek, sona handiagoa eman zion ekitaldiari. Nabarmenzkoa da, era berean, Iruñean ospatutako entzierroen lehenengo ferian Debak izan zuen presentziak liluratuta, espreski gure zekor-korriketan parte hartzen etorri zela Valentziatik bere kalitatea agerian utzi zuen korrikalari bat.

Arratsaldeko jaialdian Salamankako Tamameseko **Puerto de San Lorenzo** burdin-marka zeukaten lau ergi jokatu ziren, estilo eta jokamolde desberdina zeukatenak. Basati eta noblea lehenbizikoa. Bigarrena, txarrena: otzankotea, oldarkorra eta oso zaila, etengabe zezenketariaren zapatillak bilatzen dituzten horietako. Hirugarrena, otxana, jenioduna, gobernatzeko erraza. Eta laugarrena, zenbait alditan kikiltzéko imintzioa egin zuena baina, zezenplazaren erdian jokatuta, joko paregabea eman zuena, noblea eta gobernaerraza. Lehenengoak eta hirugarrenak txaloak izan zituzten herrestan eramaterakoan. Plazan bira bat eman zioten laugarrenari.

Gutxi falta erabat beteta egoteko. Ekaitza, tximista eta trumoiak; zaparrada eta guzti lehenengo zekorrarekin.

**Salvador Martínez** aritu zen plazaburu, 24 urtetan gure festetan ohikoak den Lizarrako gaiteroen bandako partaidea. Txaloak jaso zituen agintarien balkoian agertu zenean eta nota ona atera zuen eginkizun horretan.

**Javier Cortés**, Madrileko. Belarria lehenengoan eta agurrik eratzun aldetik bigarrenean. Madrileko zekortariak saio ona egin zuen. Ondo eta bare jokatu zuen bere lehenbiziko zekor ona, hiltzeko ezpata-ukaldia piska bat atzera geratu zitzzion arren. Merezitako belarria eman zioten. Bere bigarrena zaila izan zen: mugimendu eta pase asko zeuzkan mantso arrazadunak, baina garaikurren bat lortzeko aukera guztik galdu zituen hiltzeko lantze erabakigarrian bost saikera behar izan zituelako. Pase txalogarri batzuk egin zituen eta bere aurkariaren gainetik egon zen.

**Roman Pérez** frantsesak impresio ona laga zuen Deban. Bere lehenbiziko zekorra, mantso zaila eta ibilzalea, defentsiban egon zen eta etengabe zapatilla bila ibili zen; piztia bat zirudien, baina prestu eta egoki ibili zen Frantziakoa. Bipil aritu zen eta ez kikiltzéko adorea izan zuen. Zazpi saiakeraren ondoren, piska bat atzera geratutako ezpata-ukaldi baxu batez hil zuen. Bere bigarrenean gaitasun guztik erakutsi zituen, zekorra primeran jokatuz batez ere ezke-

el capote, tanto en los novillos de su lote, como en los quites que realizó en las que correspondían a su compañero de cartel. Mató de estocada algo trasera, pero su desacuerdo con el descabello le hizo perder los trofeos. Sobresalieron los tres toreros de plata de su cuadrilla que lidiaron y banderillearon excelente mente.

Actuó como sobresaliente **Alberto Gómez** de Salamanca que sustituyó al anunciado **David Luis Cerezo**. Le dieron pocas oportunidades para lucirse.

#### NOVILLADA DEL 18-08-2006 PROTAGONISTA EL ENCIERRO

Con el objetivo de promocionar el encierro de Deba, único que se celebra en la CAPV con los novillos que se lidian el mismo día por la tarde en la plaza de toros, el periodista y gran aficionado, **Juan Luis Bikuña**, propició la presencia de las cámaras de ETB, que emitió en sus noticiarios imágenes del encierro del día 18 de agosto. Para mejor cumplir con este objetivo, además de los experimentados corredores locales, participaron corredores habituales de los encierros de Pamplona, lo que dió mayor publicidad al evento. También es preciso destacar que, atraído por la presencia de Deba en la primera feria del encierro celebrada en Pamplona, desde Valencia acudió para participar expresamente en nuestros encierros un corredor que dejó constancia de su calidad.

En el festejo de la tarde se lidiaron cuatro erales del hierro de **Puerto de San Lorenzo** de Tamames (Salamanca), de estilo y conducta desiguales. Bravo y noble el primero; un segundo, el de peor nota, mansurrón, agresivo y muy difícil, de los que buscan constantemente las zapatillas del torero; un tercero mansito, encastado y manejable y un cuarto que hizo además de rajarse en varias ocasiones pero que, toreado en el centro de la plaza, dió un excelente juego y fue muy noble y manejable. Primero y tercero aplaudidos en el arrastre. Al cuarto se le dio la vuelta al ruedo.

Se rozó el lleno. Tormenta con truenos y relámpagos, con chuparrón incluido en el primer novillo.

Presidió la novillada **Salvador Martínez**, integrante de la banda de Gaiteros de Estella que son habituales en nuestras fiestas desde hace 24 años. Fue aplaudido al aparecer en el balcón de autoridades y resolvió con buena nota su cometido.

**Javier Cortés** de Madrid, oreja en su primero y saludos desde el tercio en el segundo. El novillero madrileño tuvo una buena actuación. Toreó bien y templado a su buen primer novillo al que mató de una estocada algo trasera. Cortó una merecida oreja. En su difícil segundo, un manso enrazado que se movió mucho y tenía muchos pases, estropeó con la espada la posibilidad de algún trofeo ya que intentó la suerte suprema hasta en cinco ocasiones. Dió algunos pases muy meritorios, estando por encima de su oponente.



treko adarretik; animaliak atzera egin nahi izan zuen baina, amaieran, noblezia handiz oldartu zen. Zezenketa eta gustu ona izan ziren saioaren ezaugarriak. Bigarren saiakeran hil zuen ezpata-ukaldi ia oso batez, zekorra hartuz. Belarri bat moztu zuen eskubide osoz.

Ordezkoa Salamankako **Alberto Gómez** izan zen.

#### 2006-08-20ko ZEKORKETA PLAZABURUAREN JARDUNBIDE POLEMIKOA

**Puerto de San Lorenzoko** lau zekor, ondo aurkeztuak, portaera eta erremate desberdinakoa. Lehenengo eta laugarrena nota onenekoak, basati eta nobleak baina bigun eta indar gutxikoak; bigarrena, otzankotea, geldirik egon ezin duten horietakoak eta oso deserosoa zekortekariarentzat eta hirugarrena, otzana, arrazaduna eta bi adar aldeetatik ondo ibili zena, nahiz eta beti aurpegin gora atera pase bakoitzetik. Lehenengo eta laugarrena txalotuak izan ziren herrestan ateratzerakoan. Zekortekaren plazaburuak, **Iñaki Odriozola**, jardunbide polemikoa izan zuen, iritzi banaketa eragin baitzuen; ikusle batzuek errieta egin zioten hirugarren zekortekan belarria ez emateagatik. "Ez da txartelik geratzen" eskegi behar izan zen berriro.

Salamankako **Díaz Romero** bira eman zion plazari lehenengoan eta baita bere bigarrenean ere, jendeak hala eskatu eta gero. Zuzen aritu zen lehenengo zekorrarekin (oso noble baina indarrik gabea), eta ziztako eta ukaldi erdiz hil zuen. Bere bigarrenean, zekorraren kualitateen gainetik ibili zen eta zertxobait atzera eta perpendikular geratutako ukaldi erdiz hil zuen. Gehiengoa belarria eskatzen zuela zirudien, jendearen oihuak kontuan hartzen baditugu behintzat; astindutako zapiak kontuan hartuz gero, ordea, ez zuen hainbestera inoko ematen. Plazaburuak ez zuen belarrik eman eta sekulako errieta jaso zuen, agintari gorenaren ehangaznahamendua sortzearno; ondorioz, ez zuen arretaz jarraitzerik izan hileta Zortzikoaren hasiera, hirugarren zekorra herrestan eraman aurretik Deban entzuten dena. Bide batez, esan, hileta zortzikoari moldaketak egin zizkiotela eta, aurreko urteetako bertsioarekin alderatzu, desberdin entzun zela; horrek iritzi desberdinak sortu zituen bildutako artean..

Zamorako **Alberto Durán**. Isiltasuna jaso zuen bere lehendabizikoarekin eta agurrrak eratzun aldetik (gutxiengoak hala eskatuta) jaialdia itxi zuen azken zekorrarekin. Bere lehenengo zekorra, arriskutsua, ez fio izateko, oso gaizki jokatu zuen oro har, nahiz eta ezkerreko adarretik jokatzerakoan zenbait pase txalogarri lortu. Ergi honek nahamendua sortu zuen plazan. Zamorarrak, ziztako bat eta ezpata-ukaldi oso bat eman eta gero (atzera eta paralelo samar geratu zitzaina), bost saiakera behar izan zituen lepatxokoa hautsi eta bere aurkaria garaitzeo; aurretik plazaburuaren abisua izan zuen. Laugarranean (zekor motela baina basati eta noblea), animalia baino beheragotik aritu zen; ukaldi erdi bat eta oso bat (perpendikular samar) behar izan zituen hiltzeko.

Salamankako **Alberto Gómez** izan zen ordezkoa.

Arratsaldeko hirugarren zekorra jokatzerakoan, **Díaz Romero** zekortekariari belarria ez emateko plazaburuak har tutako erabakiaren ondoren sortutako polemika dela eta, honen inguruuan Euskadiko Zezenketa Araudiak dioena gogoratzea komeni da.

#### 72. atala. Ezpatariantzako sariak

1.- Ezpatariekin jaso ditzaketen sari edo garaikurrak honako hauek dira: eratzun aldetik agurtzea, zezen-plazari bira osoa ematea, toreatu duen zezenaren belarri bat edo biak eta zezen-plazako ate nagusitik bizkar gainean ateratzea. Ohiz kanpoko kasuetan, plazaburuak hala erabakitzentzat, zeze-

El francés **Roman Perez** causó una buena impresión a su paso por Deba. Estuvo digno y más que correcto con su primer novillo que fue un manso difícil, correoso y defensivo que parecía una alimaña, buscando siempre las zapatillas. El francés estuvo valiente y tuvo la gallardía de no arredrarse. Tras siete intentos mató de una estocada baja, algo trasera. En el segundo de su lote mostró sus aptitudes toreando muy bien sobre todo por el pitón izquierdo a un novillo que quiso rajarse pero que terminó embistiendo con mucha nobleza. Su faena se caracterizó por la torería y el buen gusto. Mató al segundo intento de una estocada casi entera, recibiendo al novillo. Cortó una oreja de ley.

Actuó de sobresaliente **Alberto Gómez** de Salamanca.

#### NOVILLADA DEL 20-08-2006 POLEMICA ACTUACIÓN PRESIDENCIAL

Cuatro novillos de **Puerto de San Lorenzo**, bien presentados, de diferente comportamiento y remate. Primero y cuarto los de mejor nota, bravos y nobles pero blandos y con poca fuerza; un segundo mansurón, gazapón y muy incómodo para el novillero y un tercero manso, con casta y que valió por los dos pitones, aunque salió siempre con la cara alta de cada pase. Primero y cuarto aplaudidos en el arrastre. Presidió la novillada **Iñaki Odriozola** que tuvo una actuación polémica que generó división de opiniones y que fue abroncado por una parte del público por negarse a conceder la oreja en el tercer novillo. Otra vez se colgó el cartel de "no hay billetes".

**Díaz Romero de Salamanca**, vuelta al ruedo en el primero y vuelta al ruedo tras petición<sup>1</sup> en su segundo. Estuvo correcto con un primer novillo muy noble, pero con poca fuerza, al que mató de pinchazo y media estocada. En su segundo estuvo por encima de las cualidades del novillo al que despachó de media estocada algo trasera y perpendicular. Hubo petición que parecía mayoritaria si se tiene en cuenta la vociferante petición del público, aunque no pareció tan mayoritaria si se toma como referencia el número de pañuelos que agitó el público. El presidente no concedió la oreja y recibió un sonora bronca que creó confusión en la máxima autoridad y que no estuvo atento al inicio del Zortziko fúnebre que suena en Deba antes del arrastre del tercer novillo. Por cierto, que este año el Zortziko fúnebre ha sido objeto de arreglo y ha sonado de forma diferente a la de años precedentes, lo que ha creado división de opiniones entre los asistentes.

**Alberto Durán** de Zamora, silencio en su primero y saludos desde el tercio, tras petición minoritaria en el novillo que cerró plaza. En su primer novillo, un manso reservón, toreó por el pitón izquierdo consiguiendo algunos pases meritorios. Este era, creó desconcierto en la plaza siendo muy mal lidiado. Tras un pinchazo y una estocada entera trasera y algo tendida necesitó cinco descabellos para finiquitar con su oponente oyendo un aviso presidencial. Estuvo por debajo del flojo pero bravo y noble cuarto al que finiquitó de media estocada, que fue escupida por el novillo, y una entera algo perpendicular.

Actuó de sobresaliente **Alberto Gómez** de Salamanca.

Tras la polémica que surgió por la decisión del presidente de no conceder la oreja al novillero **Díaz Romero** en el tercer novillo de la tarde, conviene recordar lo que dice el Reglamento Taurino de Euskadi sobre esta cuestión.

#### Art. 72. Premios a los espadas

1.- Los premios o trofeos para los espadas consistirán en el saludo desde el tercio, la vuelta al ruedo, la concesión de una o dos orejas del toro que haya lidiado y la salida a hombros por la puerta principal de la plaza. Únicamente, de un modo excepcional a juicio de la Presidencia, podrá ésta conceder el corte del rabo de la res.



naren buztana jaso dezake sari gisa.

2.- Sariok emateko erari dagokionez, agurretarako eta zezen-plazari bira emateko, ezpatariak berak erabakiko du, ikusleen txaloak kontuan izanik; belarri bat emateko erabakia plazaburuari dagokio, ikusleen gehiengoak hala eskatuz gero; zezenaren bigarren belarria emateko erabakia ere plazaburuari dagokio, honek, ikusleen eskakizunak, zezenaren baldintzak, zezenketaren ekitaldien zuzentasuna, kapotearekin eta muletarekin egindako faena eta, batez ere, ezpatakada kontuan izango dituelarik.

Belarriak eta buztana mozteko orduan algoaziltxo batek egon beharko du bertan, eta berorri dagokio ezpatariari sariok ematea.

Plazako ate nagusitik bizkar gainean irten ahal izateko, ezinbesteko baldintza izango da zezen baten belarri biak lortu izana.

3.- Plazaburuak, suhartasun handia erakutsi duten zezenen kasuan eta ikusleek hala eskatuz gero, zezena plazari buelta ematen narrasean eramateko agindua eman dezake zapi urdina erakutsiz.

Ikusle gehienek hala eskatuz gero, abeltzainak edo unaimazterrak plazari buelta eman ahal izango dute.

Ikus daitekeenez, belarri bat ematea plazaburuari dagokio ikusleen gehiengoak hala eskatuta. Beraz, lehenengo garaikurra (hau da, lehenbiziko belarria) da eman ala ez ikuslekoak erabaki ahal duena. Araudiak ez du zehazten eskaera hori adierazteko modua zein izango den baina, ohitura da zapien bitartez eskatzea. Jendeak iritzia adierazteko modua dena delakoa izanik ere, plazaburuak gehiengoaren eskaria sumatzen jakin behar du eta horren ondorioz jokatzen.

Bigarren belarria ematea edo bi belarri eta buztana, soilik plazaburuari dagokio eta bere irizpidearen arabera egingo du, beti ere gertaera guztiak aztertuz: zezenaren baldintzak, toreatzaileak zezena jokatzerakoan, toreatzerakoan eta hiltzerakoan erakutsitako kalitatea eta, nola ez, jendearen borondatea kontuan izanik. Ezin da ulertu, lehenengo belarria eman eta gero, jendeak insistitu gabe, plazaburuak garaikur gehiago ematea.

Eraztun aldetik agur egiteko edo plazari bira emateko ez da plazaburuaren erabakirik behar; hori toreatzaileak berak erabakitzentzu du, egindako saioari jendeak emandako erantzuna ikusita.

2.- Los premios o trofeos serán concedidos de la misma forma: los saludos y la vuelta al ruedo los realizará el espada atendiendo, por sí mismo, a los deseos del público que así lo manifieste con sus aplausos. La concesión de una oreja se realizará por el Presidente a petición mayoritaria del público; la segunda oreja de una misma res será de la exclusiva competencia del Presidente, que tendrá en cuenta la petición del público, las condiciones de la res, la buena dirección de la lidia en todos sus tercios, la faena realizada tanto con el capote como con la muleta y, fundamentalmente, la estocada.

El corte de apéndices se llevará a efecto en presencia de un alguacilillo que será, a su vez, el encargado de entregárselos al espada.

La salida a hombros por la puerta grande o principal de la plaza sólo se permitirá cuando el espada haya obtenido al menos dos orejas en un mismo toro.

3.- El Presidente, a petición mayoritaria del público, podrá ordenar, mediante la exhibición del pañuelo azul, la vuelta al ruedo de la res que por su excepcional bravura durante la lidia sea merecedora de ello.

El saludo o vuelta al ruedo del ganadero o mayoral podrá hacerlo por sí mismo, cuando el público lo reclame mayoritariamente.

Como se podrá comprobar, la concesión de una oreja se realizará por el Presidente a petición mayoritaria del público. Es por tanto un trofeo, el de la primera oreja, cuya concesión no corresponde al respetable. El reglamento no establece el modo con que se expresa la petición del público, aunque la costumbre es que el trofeo se pida agitando pañuelos. Sea cual sea el modo en el que la gente exprese su opinión, el Presidente debe saber apreciar cuándo hay petición mayoritaria y obrar en consecuencia.

La concesión de la segunda oreja o de dos orejas y rabo, es competencia exclusiva de la Presidencia y las concede según su propio criterio aunque analizando todas las circunstancias concurrentes: la condición del toro; la calidad con que el torero lo haya lidiado, toreado y matado y, por supuesto, teniendo presente la voluntad del público. No se concibe que sin insistir el respetable en la petición de más trofeos, tras la concesión de la primera oreja, la Presidencia otorgue más premios.

El saludo desde el tercio y la vuelta al ruedo no precisan de decisión presidencial, sino que lo decide el propio torero a tenor de la reacción del público al juzgar su actuación.

